

**GOBERNU JUNTAK 2017.11.02an EGINDAKO
BILKURA BEREZIKO AKTA**

LEHENDAKARIA

UNAI ELKORO OIANGUREN

ARETXABALETA

BOKALAK

BEÑARDO KORTABARRIA OLABARRIA
JOSÉ MIGUEL URIBARREN AZPIAZU
ELENA LETE GARCIA
LANDER ARREGI INCHAUSTI
SABINO AZCARATE LETURIA
JUAN KARLOS GARITANO EZKURRA
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA

ANTZUOLA
ARETXABALETA
BERGARA
BERGARA
BERGARA
ARRASATE
ELGETA
ESKORIATZA

ETORRI GABEAK

MARIA UBARRETXENA CID
IBON ARRUPE ALDECOCEA
OSCAR GARCÍA HORRILLO
ENEKA ZANKADA REMENTERIA
MIKEL BIAIN BERRAONDO
IRATI ETXEBERRIA GABIRIA
NEREA ZUBÍA BLAZQUEZ

ARRASATE
ARRASATE
ARRASATE
LEINTZ-GATZAGA
OÑATI
OÑATI
OÑATI

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea

Mankomunitatearen egoitzako bilera gelan, 2017ko azaroaren 2an, 11:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Unai Elkoro Oianguren jauna, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren presazko bilkura berezia hasi da, goian aipaturikoak bertan direla, ondorengo gaiak tratatzeko.

1.- Bilera honen presari buruzko erabakia

Bilkura honen presaren ondorengo arrazoiak azaldu dira:

Etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua emateko "UTE DEBAGOIENA 2017" enpresa elkarrekin sinatutako kontratuaren bigarren aldaketa lehenbailehen onartzea komeni da, kontratuaren helburua handituz aurreko kontratua bukatzean kalean gelditutako hainbat langilek lana izan dezan, greba deialdiaren markoan adostutakoa betez.

Bestalde, Epeleko RCD Planta era urtarrilean martxan jarri behar da, eta horretarako tasak lehenbailehen onartu behar dira.

Gobernu Juntak aho batez onartu du bilkura honen presa.

2.- Etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua emateko UTE DEBAGOIENA 2017 enpresa elkarrekin sinatutako kontratuaren bigarren aldaketa

Hasteko Landerrek, Hondakinen Kudeaketa Batzordeko lehendakariak, hondakin bilketako langileen greba deialdiari buruzko informazio zehatza eman du: izandako negoziazioak, hartutako erabakiak, etabar.

Iraitz Lazkanok eta Beñardo Kortabarriak, Elgeta eta Antzuolako alkateek, grebari buruzko informazio falta egon dela adierazi dute. Hondakin bilketa, oinarritzko zerbitzu bat izanik, ez dutela inongo informaziorik izan, eta nahiz eta ulertu negoziazio zailak izango zirela, uste dutela herri guztietako ordezkariaren bat gutxienez jakinean egon beharko lukeela.

Gainontzeko Juntakideek Lander eta Unairi greba deialdia bertan behera uzteko egindako lana eskertu diete.

Zegokion prozedura jarraitu ondoren, pasa den irailaren 25ean sinatu zuen Mankomunitateak "UTE DEBAGOIENA 2017" enpresa elkarrekin bere 8 udalerrietan etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua emateko kontratua. Kontratu hau irailaren 30ean sartu zen indarrean.

Kontratu berri hau indarrean jartzeak, aurreko enpresa kontratistatik zetozen hainbat lan-jardunaldiren murrizketa eta 8 langile ez subrogatzea eragin zuen. Arrazoi hori zela eta, zerbitzuko langileek greba deialdia egin zuten.

Mankomunitateak, hondakinak bildu eta garraiatzeko gutxieneko derrigorrezko zerbitzuaren titular moduan, alde batetik, interes publikoa defendatzeko helburuaz, greba egoerak sor zitzakeen kalteak ekiditeko, eta bestetik, arazo sozial honetatik eratorritako gatazkan irtenbide bat aurkitzen laguntzeko, bitartekari moduan, bi aldeak, kontratista eta langileak, hainbat bileretara deitu zituen akordioa lortu ahal izateko.

Bestalde, Mankomunitateko lehendakariak konpromisoa hartu zuen, berehala, "UTE DEBAGOIENA 2017" aldi baterako enpresen baturarekin sinatutako, etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko kontratua handitzeko zegoen kontratu aldaketa espedientea hasteko, hainbat zerbitzu berri txertatuz, beti ere baldintza agiritan jasotakoaren arabera, eta tramitatu ondoren Mankomunitateko Gobernu Juntara aurkezteko, bere onespenerako.

Hau dela eta, etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua emateko UTE DEBAGOIENA 2017 enpresa elkartearekin 2017/09/25ean sinatutako kontratuaren bigarren aldaketa-espedientea bideratu da.

Aldaketa-proposamena ikusirik, eta kontratistaren adostasunarekin, Gobernu Junta honek, Beñardo Kortabarria eta Iraitz Lazkano Juntakideen abstentzioarekin, ondorengo ERABAKI DU:

1. Mankomunitate honetako udalerrietan etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua emateko kontratuaren bigarren aldaketa onartzea, Administrazio Klausula Berezien Agiriko 16. klausulan ezarritakoaren arabera, eta aldaketa-proposamenean zehazturiko terminoetan.
2. Kontratuaren prezio berria onartzea, guztira hilean 226.348,08 €-koa izango delarik, gehi BEZ, ondorengo xehekapenaren arabera:
 - Esleipen prezioa: 195.814,25 €.
 - 1. aldaketa, ehunkien bilketa: 9.812,56 €. (aldi baterako aldaketa, +/- 4 hilabete)
 - 2. aldaketa, "gora-behera eta bat bateko beharrak arratsaldez-lan gehigarriak": 8.360,76 €. (aldi baterako aldaketa, 6 hilabete)
 - 2. aldaketa, gainontzeko zerbitzu berriak: 12.360,51 €. (kontratua bukatu arteko aldaketa)
3. Aldaketa honen ondorioz kontratuaren prezioan izandako gehikuntzari erantzuteko dagokion gastua onartzea.
4. Behin betiko bermea 34.852 €-tan egokitzea.

3.- Eraikuntza eta Eraispenerako Hondakinen (RCD) Planta zerbitzuaren tasak ezartzeko arriskutsuak ez diren hondakinen zabortegi zerbitzuaren tasaren Ordenantza Fiskala aldatzea

Hasteko Epeleko zabortegiaren egoera ekonomiko larriaren eta etorkizunerako aurreikuspenen berri eman du kontu-hartzaileak.

Ondoren, Eraikuntza eta Eraispenerako Hondakinen (RCD) Planta zerbitzuaren tasak ezartzeko arriskutsuak ez diren hondakinen zabortege zerbitzuaren tasaren Ordenantza Fiskala aldatzeko proposamena ikusita.

Eta kontu-hartzailearen txostena ikusirik, Gobernu Juntak, aho batez, zera ERABAKI DU:

1) Aipatu Ordenantza Fiskala aldatzeko espedienteari hasierako onespena ematea.

- **Hondakin ez arriskutsuen zabortege zerbitzua eta Eraikuntza eta Eraispenerako Hondakinen Planta zerbitzua emateagatikoko tasen Ordenantza Fiskala.**

Ordenantza honen tarifa eranskina aldatzea, honela geratuko delarik finkatuta:

KONTZEPTUA	TASA (€/Tm)
<p>Indusketa-soberakin garbiak. lur garbiak, lurzorua, haitzak, harri xehea, balasto edo legarra, hondarrak, harria, beste osagairik nahastuta izan gabe. Ekoizle bakoitzeko eta urteko:</p> <ul style="list-style-type: none"> • ≤ 500 Tm. • 501-2.000 Tm. 	<p>14,54 €/Tm 38,01 €/Tm</p>
<p>Poluitutako indusketa soberakin edo eraikuntza eta eraispenerako hondakinak. Hondakin arriskutsuak ez diren, baina behar diren ikerketak egin eta gero, eta indarrean dagoen legeriaren arabera, poluitutako materialak bezala klasifikatzen direnak, beste osagairik nahastuta izan gabe.</p>	<p>38,01 €/Tm</p>
<p>Arriskutsuak ez diren industria hondakinak. Industria-prozesuetatik datozen hondakinak, homogeneoak, inolako nahasturarik gabeak:</p> <p>(A) Hondakin trinkoak, adibidez, aurre-balorizatutako zepa edo eskoriak, galdaketa-hondarrak, labe garaietako eta metal-galdaketako erregogorrik eta antzeko hondakinak.</p> <p>(B) Areiak baino bikor finagoa duten hondakin industrialak, lokatzak eta hauen bezalako konportaera fisikoa izan dezaketen beste hondakin batzuk.</p>	<p>12,25 €/Tm 17,27 €/Tm</p>
<p>Arriskutsuak ez diren hondakin-nahasturak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Arriskutsuak ez diren industria hondakinak, eraikuntzako eta eraispenerako hondakin garbiak, edota indusketa-soberakin garbiak beren artean nahasiak edozein proportziotan. • Arriskutsuak ez diren hondakinak, goma, kautxua, beira, erratze hautsak edo onargarria den beste edozein hondakin, edozein proportziotan. 	<p>64,91 €/Tm</p>
<p>Eraikuntza eta eraispenerako hondakinak (EEH) tratatzeko instalazioetatik datozen hondakinak</p>	<p>64,91 €/Tm</p>



KONTZEPTUA	TASA (€/Tm)
<p>Onartuko ez diren hondakinak. Ez dira onargarriak ez bakarrik, ez beren artean nahastuta, ez beste hondakin batzuekin nahastuta:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Debagoieneko Mankomunitateko eskualde eremuan sortu ez diren hondakinak. • Indusketa soberakin garbiak: ekoizle bakoitzeko eta urteko 2.000 Tm baino gehiago. • Zura edo egurra (sabai izuna barne). • Papera eta kartoia. • Plastikoa. • Metala. • Hondakin arriskutsuak, eta horiek eduki dituzten ontziak barne. • Hondakin organikoak. • Zaborrak, etxeko hiri-hondakinak. • Erabileratik kanpoko pneumatikoak. • Altzariak eta tresnak. • Baimenik gabeko industri hondakinen nahasteak. • Kale-garbiketako hondakinak. • Poluitutako indusketa soberakin edo eraikuntza eta eraispeneko hondakinak, lur edo material garbiekin edo beste arriskutsuak ez diren hondakinekin nahasiak edozein proportziotan. • Oro har, Debagoieneko Mankomunitateak onartzeko ezarri dituen baldintzak betetzen ez dituzten hondakin guztiak. 	EZ ONARGARRI

2.- Erabaki hau eta horretarako bideratutako espedientea informazio publikorako aurkeztea 30 lanegunez, interesatuek aztertu eta bidezko iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

3.- Hasierako erabaki hau, beste erabakirik hartu beharrik gabe, behin betiko onartutzat ematea, erreklamaziorik ez bada aurkezten.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 12:30etan, bukatutzat eman da bilkura.